


Begira

ULMA

2010eko maiatza // 21 zk

ULMA Inoxtruck sortu da, ULMA Taldearen Sustapen berria



aurrez aurre



Bernabé Unda
*Industria, Berrikuntza,
Merkataritza eta Turismo
Sailburua*

erreportajea



ULMA
Construcción-ek
*Dels 2 Valires tunelerako
sarbideetan lankidetzan
jardun du Andorran*



Aurkibidea

21 zk • 2010ko maiatza



3 > HIZPIDEA...: Guztiok norabide berean. **4 > ALBISTEAK ETA GAUR EGUNGO GAIAK:** ULMA Agrícola Mexikon. ULMA Conveyor Components S. Coop. Homologazioak. CAFENTO eta ULMA Handling Systems: sistema logistiko baten usain gozoa. ULMA Orga Jasotzaileak Diamante Berde berri bat merkaturatu du. Tenisaren tenplu berria –La Caja Mágica– ULMA drainatze kanalekin. **14 > AURREZ AURRE:** Bernabé Unda. Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailburua. **16 > ERREPORTAJEA:** ULMA Inoxtruck sortu da, ULMA Taldearen sustapen berria. **18 > ERREPORTAJEA:** ULMA Construcción-ek Dels 2 Valires tunelerako sarbideetan lankidetzan jardun du Andorran. **20 > ASTEBURURAKO TXANGOAK:** Guadarramako mendilerroa. **22 > GUTARREN ARGAZKIAK ETA HISTORIAK:** David Ardions, ULMA Orga Jasotzaileak negozioko bazkidea. **23 > ZER DERITZOSU?** **24 > AGENDA ETA IRADOKIZUNAK.**

Taldeko kooperatiba guztiak Batzarrak egiten ari diren honetan, zuekin hainbat gogoeta partekatu eta ULMA Taldearen gaur egungo egoera aztertu nahi nuke. Laz esan nuen ezin geniola mundu osoan nozitzen ari ginen krisi egoerari ezikusiarrena egin eta, zoritxarrez, aurten oraindik ere gogoeta hori nabarmendu besterik ezin dut egin. Azken urtean aurkitu dugun egoerak ahalegina egiteko eskatu digu ULMA Taldeko bazkideen kolektibo osoari, eta ahalegin horretan jarraitu beharko dugu gure negozioak indartzeko eta, susperraldia iristen denean, lehen lerroan egoteko. 2009an arazoak izan dira negozioetan Gestio Planetan zehaztutako fakturazioan, emaitzetan eta abarretan helburuetara iristeko. Horren ondorioz, besteak beste,

jende guztia okupatzeko behar besteko lan ez daukagun garaian, egia bada ere gure inguruko eremura mugatzen den tresna dela, figura hori MONDRAGON Taldeko eremu nagusitik kanpo aplikatzea zeregin zailagoa baita. Ondorioz, hainbat bazkidek betiko utzi berri gaituzte, ezinezkoa izan zaielako behin betiko trasladoari aurre egitea. Espero dugu jarduera maila berreskuratzea, Ulmako bazkide bakoitza lehenbailehen bere negoziara itzuli ahal izan dadin. Finantziarioari dagokionez, egoera hobetu ez eta, gainera, kaskartu egin da. 2009. urtean, azken hamarkadan lehenengo aldiz, ez dugu bankuei eskatutako finantziario guztia lortu; zehazki, eskatutakoaren erdia lortu dugu. Gurea bezalako Talde batean, kontuan

behar-beharrezkoak direlako negozioek funtzionatu ahal izateko. Aurreko urtean bezala, amaieran bi mezu eman nahi ditut. Lehenik eta behin, esan nahi dizuet kooperatibetako erabaki organoetan konfiantza izateko unea dela; beharbada, zuetako bakoitza igarotzen ari zareten egoerapertsonalakedo inguruko enegoerak zaildu egin dezake konfiantza hori ematea, ez izan zalantzarik, ordea, negozioetako gobernu organoetan gabiltzanok saiatzen ari garela negozioentzat onenak direla uste dugun erabakiak hartzen, egoera honetatik lehenbailehen ateratzeko. Denok bat eginik joateko garaia da, ikuspegi desberdinak emanez, espiritu kritikorekin, baina betiere alternatibak proposatuz, eraikitze asmoarekin. Laz



Guztiok norabide berean

Xabier Mugarza. ULMA Taldeko Kontseilu Orokorreko lehendakaria.

doikuntza handiak egin behar izan dira egiturako gastuetan eta gastu orokorretan, ordainsariei eragin dieten neurriak hartu behar izan dira, eta kapitalizazioari eta, are interesak sortzeari, eragin dioten proposamenak planteatu behar izan dira. Aurreko urtean esan genuen krisiaren inpaktua bi alderdi funtsezkotan islatzen zela, eta horiek dira finantziarioa eta enplegua. Enpleguari dagokionez, 2008ko joerari jarraituz, 2009an enplegua galtzen jarraitu dugu, 2010ean egoera pixka bat egonkortu dela badirudi ere, eta zenbait negoziotan berreskuratu ere egin bada ere. Gai honetan azpimarratu nahi dut 2009an birkokatuta izan ditugun pertsonen kopurua, bai Taldeetik kanpo, bai Taldeko negozioetan, eta 2010ean berdin jarraitzen dugu. Alde batetik, 2009. urtearen zati handi bat –eta 2010ean jarraitzen dute– ohiko ingurunetik kanpo lanean aritu diren bazkideen esfortzua aitortu nahi dut, baita kokapena behin betiko aldatu behar izan dutenena ere; horrez gain, nabarmendu nahi dut tresna hori zein lagungarria den

hartuta negozioek funtzionatzen jarraitzeko inbertsio handiak behar dituztela, finantzen atala elementu murriztaile bilaka daiteke. Aurten, ongi dakizueenez, bankuekin dugun zorra berrantolatzekeo prozesuan dihardugu buru-belarri: negoziario prozesua oso giro zailean garatzen ari da, ekonomia ez delako nahi bezain sendo berraktibatzen ari, dagoen langabezi maila altua egoera bideratzeko zama astuna delako, finantzen sistemak urterik txarrenari aurre egin behar diolako eta Kontu Publikoak merkatua zalantza betetzen ari direlako. Giro horretan, finantza arloko neurri guztiak are garrantzitsuagoak dira, gure betekizun finantzarioak murriztu ahal izateko. Testuinguru horretan kokatu behar dira Konbertsio Faktorearen doikuntzak, interesak kapitalizatzeko proposamenak, gastu orokorren murrizketak, etab. Azpimarratu nahi nuke estutu behar ez genukeen alderdi bakarra inbertsioen maila dela, izan ere, puntu horretara iritsiko bagina, negozioen etorkizuna konprometitzen ariko ginateteke, inbertsioak

ere esan nuen ez, konbentziturata nago kooperatibetan mundu guztiak norabide berean lan egiten badu, orduan irtengo direla indartuta, dudarik gabe. Bigarrenik, esker oneko mezua bidali nahi diet ULMA Taldeko bazkideei, berriro ere erakusten ari garelako gure proiektuaren alde borrokatzekeo prest gaudela, eta ez dut inolako zalantzarik erakusten jarraituko dugula eta etorkizunean ager daitekeen edozein premiari erantzungo diogula, hurrengo belaunaldiei kooperatiba sendoagoak uzteraino.

Eskerrik asko guztioi.

Minuihin efektua Ibaiondo Gizarte Etxean

ULMA Hormigón Polímero-k Fatxada Aireztatuz estali du Gasteizko Ibaiondo Gizarte Etxe berria, eta eraikinak minuihin testuraren bidez lortutako efektu optiko berezia hartu du. Hainbat bolumenetako plaka estandar bat da, 15 mm-ko neurria duten uhinak sortzen dituena. Testura horrek kolore bereko panelak eta hainbat norabidetan kokatutako ildaskak dauzka, eta horrek egunean zehar aldatuz doan polikromatismo efektu optikoa lortzea ahalbidetu du, fatxadaren akabera aberasten duten ñabardurekin. Proiektua egin zuten arkitektoak Idom ACXT Arquitectos-eko Jesus Armendariz Eguillor, Amaia Los Arcos Larumbe eta David Resano Resano izan ziren, eta argi izan zuten material hori hautatuko zutela proiektuaren lehiaketa fasetik, zeren eta oso modu positiboan eta esperimentatzeko aukera gisan baloratu baitziren hormigoi polimeroak eskaintzen dituen aukerak, bai testurei bai akaberei dagokienez. 14.000 metro koadro



hartzen duen eta 13 milioi euroko aurrekontua izan duen eraikin erraldoi iraunkor hau hiriko ekipamendu sozialik abangoardistena bilakatu da.



ULMA AGRÍCOLA MEXIKON. ULMA Agrícola-k garrantzi handiko hainbat instalazio egin du herrialdean, esaterako, irudian azaltzen dena, Agrícola Barajas, barazkiak ekoizteko 16 hektareako eremuan -batez ere tipula, txile piperra eta tomatea-, Yurecaron, Michoacan estatuan. Hastapenetan, Agrícola Barajas lursail familiarrekin eta aire zabaleko laborantzarekin hasi zen. Izurrite eta lurzorua higitze arazoek hartararuta, lurra lantzeko modua aldatu egin zuten, eta ULMA Agrícola-ren laborantza hidroponikoari eta berotegi teknifikatuei loturiko teknika berrietan inbertitzeko apustua egin zuten. Hala, beren uzta %50 handitu dute, aire zabalean lurra landuz lortzen zutenarekiko; gainera, uztak aurreratu egin zaizkie denboran eta produkzioen kalitateak nabarmen egin du hobera. Oraingo instalazioak baditu multikapera Gotiko pabiloien modulazioak, kanal azpitik 4,5 metro duen G8 modelo, tximeleta motako zenit leiho bikoitzekin eta teleskopioa duten leiho perimetral biribilgarriekin. Barrualdeko ekipamenduari dagokionez, badago berokuntza, birzikulagailuak, ganbera puzgarria sabaian eta instalazio barruko baldintza klimatikoaren arabera ekipamendu horiei guztiei eragiteko automatismoak. Mexiko merkatu erakargarria da laborantza sektorerako, zeren eta teknologia berriekin prestatutako instalazioetara jotzeko trantsizio eta hedatze prozesu batean baitago; eta are erakargarriagoa da kontuan hartuta estatubatuar merkatutik oso hurbil dagoela eta Estatu Batuak ortuko produktuen eskatzaile handia direla. Espero da datozen urteetan Mexikon berotegiaren merkatuak profesionalizatzeko handiago batera eta teknologien bilaketara jotzea.

ULMA Orga Jasotzaileak

ULMA Orga Jasotzaileak negozioak kontratua izenpetu du Azkarrekin

ULMA Orga Jasotzaileetako gerenteak, Angel Sanchez eta Azkar Garraioetako Managing zuzendariak, Juan Antonio Quintana, joan zen otsailaren 10ean, Azkarren Cosladako instalazioetan, kontratu bat izenpetu zuten, datozen 5 urteetan orga jasotzaileak mantentzeko zerbitzu integrala emateko. AZKAR lehen mailako Nazioarteko Logistika Operadore Integrala da, Iberiar Penintsulan eta Uharteetan liderra, eta Europan erabateko estaldura duena. Izenpetutako akordioari esker, ULMAk mantentze integraleko zerbitzuak emango dizkio Azkarri. Azkar enpresa handia da eta zerbitzu aukera handia eskaintzen du jardueraren hainbat sektoretan, hala garraio eta banaketan nola logistika kanporatzeko operazioetan. 2.200etik gora ibilgailu dauka eta erakundean 5.000 profesional baino gehiago ari da lanean. Parkearen garrantzia, tamaina horretako enpresa batek dauzkan beharrak, hainbat erabilera formula zegoela eta operazioak zeukan zailtasuna eta lanaren sasoikotasuna tarteko, ULMA Orga Jasotzaileak negozioko eta AZKAReko pertsonak osatutako lan taldeak soluzio irudimentsu, malgu eta berritzaileen bidez adostu behar izan zituen akordioak. Hala bada, guztira 600 MITSUBISHI orga jarriko dira Azkarren eskuetan. ULMA Orgak orga horien inportatzaile eksklusiboa da Espainian, eta alokairu kontratuan egongo dira datozen 5 urteetarako. ULMAk Azkarren beharrei erantzuten jakin du, malgutasunaren bidez balio erantsia emanez; hala, FLESSFREE eta FLESSIRENT formulen bidez sasoikotasunak eta lanak goia jotzeko dakartzaten arazoentzako soluzioak eskaini ditu, eta aukera eskaintzen du, gainera, makinak itzultzeko, parkearen %15 osatu arte, frogatutako lan kargaren jaitziera izan bada, edo entregatzeko, lan gaitzargarik egonez gero. Horrela, marka eta hornitzailea homogeneizatu egiten dira. Hain handia den parke bat gestionatzeak zerbitzu tekniko bereziko egitura bat izatea eskatzen du. Hori dela eta, bezeroaren zerbitzura jarriko da lantegietan intzidentzien jarraipen etengabea egiteaz



eta parkearen mantentzeaz arduratuko den lantalde berri bat. Gainera, aldizka, orga jasotzaileetako teknikarien prestakuntza beharrei erantzungo zaie, lan ingurune seguru bati eusteko xedez. Azken batean, ULMA Orga Jasotzaileak negozioaren zerbitzu bokaziotik sortutako arrakasta izan da, bi enpresen arteko azterketa lan eta soluzioen emaitza.

ULMA Conveyor Components



ULMA CONVEYOR COMPONENTS S. COOP. KATALOGO PRESTIGIODUN BERRIA. ULMA Conveyor Components-ek katalogo prestigiodun berria plazaratu berri du. Katalogoan enpresari eta ULMA taldeari buruzko aurkezpen bat jasotzen da, baita aurkezpen labur bat ere produktuei, ziurtagiriei eta nazioarteko presentziari buruz. Dagoeneko 2 bertsio argitaratu dira, bat gaztelaniaz eta ingelesez, eta beste bat alemanez eta frantsesez.

ULMA Conveyor Components S. Coop. Homologazioak

ULMA Conveyor Components 2010. urte honetan homologazio prozesuarekin hasi da, munduko ikatz meategirik garrantzitsuenetako batean: Vattenfall, Alemanian. Horretarako, ULMA Conveyor gama altuko arrabola berri bat garatzen ari da, propio bezero horrentzat, Welzow-Vattenfall meategietan jasan beharko dituen esfortzu testak gaindituko dituen eta, aldi berean, bezeroak eskatzen dituen baldintzak beteko dituen abio esfortzu, dinamiko, sonoritate eta TIR-i dagokienez. Homologatu aurreko pauso gisa, lagin batzuk bidali dira ITAra (Hannoverreko Unibertsitatea), aztertzeko. Horrez gain, arrabolaren aurre-homologazioa egitea erabakia da, bezeroaren saiakuntza bankuan; hain zuzen ere, Vattenfall enpresak orain dela gutxi

egin du banku hori, Seftenberg-en. Proba maiatzean egitea espero da, meategian testa hasi baino lehenago, testa ekainean egitea aurreikusita baitago. Vattenfallek Alemanian kontsumitzen den elektrizitatearen %14 inguru ekoizten du, eta Alemania da Vattenfallek Europan duen elektrizitate merkatuak handiena. Ekoizpenaren %87 inguru erregai fosiletatik dator, eta batik bat konpainiaren jabetzakoak diren lignito meategietatik erazten dira (Jänschwalde, Nochten eta Welzow). Bezerorik zorrotzenetakoak gama altuko arrabol berria homologatzea lortzeak bultzada handia ekarriko du Alemanian etorkizunerako ditugun planetarako, eta Alemaniako gainerako talde energetikoetan sartzeko lagunduko digu.



ULMA Packaging



ULMA 2010 FRUITLOGISTICA-N. Beste urte batez, ULMA Packaging barazki eta fruituen sektoreko azoka nagusia den Fruitlogistica ferian izan zen, merkatuari produktuak bikain aurkezteko eta berme osoarekin kontserbatzeko soluzioak erakutsiz. Azoka Berlinen egin zen, otsailaren 3tik 5era. ULMA Packaging-ek barazki eta fruitu produktuen sektorerako soluzioetan duen bereizitasuna erakutsi zuen, eta horren oinarrian eskaintza zabal bat dago, enbasatzeko 6 teknologiarekin: Flow Pack (HFFS), Bertikala (VFFS), Termozigilatua, Termokonformatua, Film Zabalgarría eta Atzeragarria. Eskaintza osatzeko, produktua automatikoki kargatzeko instalazioak erakusten dira, baita lerroko amaierakoak, doitzeko eta paletizatzekeo prozesu automatizatuekin. Aipagarria da VTI 500 makina bertikalaren aplikazioa, barazkietarako, ultrasoinu bidezko soldadurako 4. gamakoa, eta berriro itxi daitekeen enbasearekin. Piperrak enbasatzeko instalazio automatikoak ere ikusmin handia bereganatu zuen, produktuaren karga automatikoarekin, Flow Pack FLORIDA bilgailurako.

ULMA Orga Jasotzaileak

MITSUBISHI GARRETLAS ELEVADORAS

1 ALQUILER FLEXIBLE
Le dejamos adecuar sus máquinas a sus necesidades a largo plazo, recogiendo las o entregando las dependiendo del volumen de trabajo que tenga en cada momento.

2 ALQUILER CON PARTICIPACIÓN
• Gran flexibilidad en Beneficios, Pérdidas.
• Con cobertura de mantenimiento.

Contratos de alquiler para grandes cuentas

Alquiladores Grandes Cuentas

www.ulmacarretillas.com

ULMA ORGA JASOTZAILEAK NEGOZIOAK BEZERO HANDIEI ZERBITZUA EMATEKO TALDE ESPEZIALIZATU BAT SORTU DU.


Parke handien gestioak zerbitzu egitura berezia izatea eskatzen du. Aspektu horretan gaitasuna izateko helburuarekin, talde espezializatu berri bat sortu behar da, administrari batek, zerbitzu teknikariek eta eremu geografiko bakoitzeko solaskide batek osatua. Taldea zerbitzu arduradunaren mende egongo da; gainera, laguntza departamentu gutzien kolaborazioa ere izango da. Zerbitzu arduraduna intzidentzien etengabeko jarraipenaz eta espainiar geografian dauden lantegietan parkeak mantentzeaz arduratuko da. Zerbitzu arin eta eraginkorra

eskainiko da, sare osoan laguntza estandar bat homogeneizatu eta lortzeko. Gainera, egun osoan erabilgarri izango den kontaktatzeko bide pertsonalizatu bat ezartze aldera, gestio hori erraztuko duen 902 telefono linea bat jarriko da. ULMA buru-belarri murgilduko da bezero handi guztiei kalitateko zerbitzu integrala emateko zereginen, eta beharrei erantzuteko gure departamentuak egokituko ditugu. ULMA Orga Jasotzaileak arrakastaz ahalegindu da bezero handien segmentuan sartzen, eskaintzen dituen soluzio pertsonalizatuei esker; beraz, orain sektorean sendotuz joateko lan egingo da.

ULMA Hormigón Polímero

ULMAko drainatze kanalak CO₂-ko zero emisio dituen lehen eraikinean

Eraikina Zaragozako Unibertsitateko Efizientzia Energetikoaren I+G+B Zentroaren egoitza da (CIRCE), eta bioeraikuntzako parametroei jarraitzen dien lehen eraikin publikoa da; bere oinarriak dira material naturalek ematen dituzten iraunkortasuna, ongizatea, harmonia eta proportzioak eskaintzea. Aldi berean, kostu energetikoak eta ingurumenekoak saihesten dira, CO₂ emisioak zero izan daitezten. ULMA drainatze kanalen linearen bidez parte hartu du proiektuan, eta U100K modeloko kanalak eman ditu, GN100KCA sareta galvanizatu eta ildaskatuarekin. Kanalak eraikina inguratzen duten plazetan jarrita daude, izan ere, hor uraren tratamendua berezia da, kanpoalde guztia, urmaelak barne, iragazkorak dira, ura berrerabili ahal izateko. Drainatze kanalak hormigoi polimeroz fabrikatuta daude, eta material hori birziklagarria eta berrerabilgarria da, ez du kutsatzen eta kimikoki inerte da. Horrenbestez, bizitza zikloaren fase bakoitzean ingurumena babesten da, bai proiektuan, bai eraikinaren eraikuntzan, horren bizitza baliagarrian eta, are gehiago, erabili ondoko zaharbertzean ere. Proiektuaren aurrekontua 2,5 milioi euro izan da, eta diseinua duela 22 urtetik hona Huescako Pirinioetan bizi den Petra Jebens-Zirkel diseinatzaile alemaniarrek garatu du.



> **Albisteak eta gaur egungo gaiak**



ULMA Handling Systems

CAFENTO eta ULMA Handling Systems: sistema logistiko baten usain gozoa

ULMAk CAFENTOrentzat diseinatu duen soluzioa formatu desberdineko kafe paketeak mantendu, paletizatu eta fardeletan jartzeko instalazio bat da, enbasatzeko makinaren produkzioaren kapazitatea bereganatzeko ahalmenarekin. Hori guztia, modularitatean eta zatikapenean bete beharreko baldintzak kontuan hartuta. Azpiegitura horri garraiorako sistema informatizatu bat gehitu zaio, honela osatua: kolektore automatikoen 6 sistema eta garraiatzeko 6 sistema, amaieran paletizatze estazio batekin, zeina 2 robotez osatuta dagoen. Instalazioa planifikatzeko orduan etorkizunean handitzeko gerta daitezkeen beharrak kontuan hartu dira, kapazitateari zein automatizazio mailari dagokionez. CAFENTOk zuzendari nagusi korporatiboa den Francisco Menendez Solisek azaldu duenez, mantentze lanetarako sistema automatikoa izan baino lehen, barne logistikako prozedurak makinan bertan egiteko soluzio konbentzionaletan oinarritua zeuden, eta enbalatzeko eta paletizatzeo gunera barne garraioaren bidez eramaten ziren (arrabol bidea, orga edo traspaleta). Ildo horretan, instalazio berriak ekarriko duen hobekuntza nagusia da "pallet bakoitzean osaera desberdineko picking eta paletizatua

egiteko aukera" dagoela. Horrek esan nahi du malgutasuna, azkartasuna eta erreakzionatzeko ahalmena handitzen direla eta, ondorioz, *erronka berriei ekin ahal izango zaiela*", azaldu du. Tineon CAFENTO automatizatzeko proiektuaren azterketa eta lanketak 10 hilabete baino ez du iraun. Aurretiaz, Zuzendaritzak hainbat proposamen hautatu eta ebaluatzeko prozesu bat egin zuen, konpainian hornitzaileak aukeratzeko dituzten estandarren arabera. "ULMAren proposamena izan zen egokiena ikuspegi guztietatik. Horren alde agertu ziren horrelako instalazioetan duen esperientzia, hurbiltasuna, proaktibitatea eta talde tekniko eta komertzialaren lankidetzeta. Gainera, esan behar da proposamen teknikoa oso interesgarria izan zela, eta aurrekontua oso ondo egokitu zitzaiola enpresaren beharriari", adierazi du Menendez Solisek. Zuzendariaren iritziz, instalazio berriak espero diren hobekuntzak oso garrantzitsuak dira. "Enbasatzeko makinaren eta biltzeko guneraren arteko garraioaren prozesuan denbora asko aurreztuko da, eta beste hobekuntza oinarritzko batzuk ere egin dira, paletizatu eta fardeletan jartzeko faseetan. Efizientzia handitzea eta malgutasuna areagotzea lortuko dugu", azaldu du.



ULMA Precinox



ULMA PRECINOX-EK KATALOGO ETA WEBGUNE BERRIAK ESTREINATU DITU. ULMA Packagingek bere aurkezpen katalogoa sortzeko eta webgunea berritzeko prozesua amaitu berri du, www.ulmaprecinox.com, tresna arin, soil eta erakargarri bihurtzeko helburuarekin. Bertsio berriak gaur egungo teknologiarik aurreratuena dauka, eta hainbat nobedade eta hobekuntza ditu, diseinuari dagokionez zein nabigazioari eta edukiei dagokienez. Diseinuaren azken joerak barneratu dira, gune eguneratu, praktiko eta erabilgarria, eta, batez ere, gure bezeroei zerbitzurik onena eskaintzeko ingurunea erakusteko xedearrekin. Ikonoen eta ilustrazioen erabilera indartu dugu, eta informazioaren antolamendu argia eskaintzen dugu, edukiak arin eta erraz kontsultatu ahal izateko. Atalen egitura bilakatu eta sinplifikatu egin da, atal erabilienetara errazago sartzeko; atal horiek zabaldu eta berritu egin dira, eta erabilzalea orain errazago mugitu ahal izango da gure eskaintza zabalean zehar.

ULMA Agrícola

ULMA Agrícola erakusketari izan zen 2010eko FIMA Agrícolan

FIMAREN 2008ko edizioaren esperientzia positiboaren ondoren, ULMA Agrícola erakusketari gisa joan zen aurten ere FIMAREN 36. ediziora. Azken edizio hori Zaragozan egin zen, otsailaren 9tik 13ra. Ia 200.000 pertsonak bisitatu zuen Nekazaritzako Makinen Nazioarteko Azoka -historian inoizko zifrarik handiena-. Azoka horrek 133.000 m²-tik gorako eremua hartu zuen, 34 herrialdetako 1.176 erakusketarekin. Nazioarteko Azokaren 36. edizioa egin izanak agerian jarri zuen nekazaritza munduak oso garrantzi handia duela munduko ekonomian. Iragana, oraina eta geroa 2010eko FIMAn batu ziren. Bost azoka egunok baliagarriak izan ziren egungo nekazaritzako makinaren merkatuan dagoen maila tekniko eta teknologiko handia agerian jartzeko. ULMA Agrícola abeltzaintzarako biltegi eta pabiloiak egiteko aukera irudi bidez erakusten zentratu zen -berotegi egiturak erabiliz-. Aukera horrek interes handia sortu zuen bisitarien artean.



BA AL ZENEKIEN...

ULMA Taldeari, 2007, 2008 eta 2009ko azken ekitaldietan, Europako 14 patente balioztatu dizkiote: 3 Alemanian, 3 Espainian, 2 Frantzian, 3 Italian eta 3 Portugalen. Ba al zenekien, halaber azken 3 urteotan ULMA Taldeak hainbat herrialdetan 8 patente zuzeneko eskatu dituela? Horien artean daude Argentina, Txile, USA eta Mexiko; eta Europako Patenteetarako ere 7 eskari egin ditu, eta PCT Nazioarteko Patenteak lortzeko beste 5 eskari.

> Albisteak eta gaur egungo gaiak

ULMA Handling Systems




“EMAKUMEEN EGUNA” ULMA HANDLING SYSTEMSEN. ULMA Handling Systemseko emakumeen urteko ohiko hitzordua joan den martxoaren 13an egin zen, emakume langilearen eguneko berezko ospakizun gisa. Orain dela lau urtetik hona, ULMA Handling Systemsek bere “Emakumeen Eguna” ospatzen du, eta ospakizun ludikoa izan ohi da, ULMA Handling Systemsen lan egiten duten emakume guztiak elkartu eta egun atsegin batez disfrutatzeko helburuarekin, eguna disfrutatzera animatzen diren emakume guztien ondoan. Aurtengo hitzordua 11:30ean hasi zen, hamaiketako eder batekin, Aguraingo Bikuña zalditegiko zaldietan paseo ederra emateko indarra hartzeko. Eguna osatzeko, bazkari paregabea egin zuten Gasteizko Tempeh jatetxean.

Dotorezia eta modernitatea San Antonio Paduakoaren elizan

Barne eraberritzea: zutabea estaltzeko pieza berezia

ULMA Hormigón Polímero-k Gijoneko San Antonio Paduakoaren eliza barrutik eraberritzen parte hartu du, zenbait pieza berezi diseinatu eta hornituz; piezak kolore beltz tratatuko hormigoi polimerozkoak dira, eta bertako kontrahormak indartzeko erabili dira. Elizaren gorputz zentralari eusten dioten sei arkuek beltz nabarmentzen dira 16 m altu den bobeda zuriaren gainean eta, ondorioz, dotorezia eta fintasun ukitua ematen diote oratorioaren barnealdeari. Obra berezi hau ULMAK eskaintzen dituen Zaharberritzeko Soluzio Integralen adibide argia da, izan ere, lankidetzaren ideia sortzen den unetik bertatik hasten da, eta proiektu jakin horretarako berariaz diseinatutako piezen hornidurarekin amaitzen da. Marcelino Galan Feito proiektua egin duen arkitektoaren hitzetan, “ULMAK estandarizaziotik irten eta proiektu bereziak garatzerakoan sortzen diren beharrak bideratzeko gaitasuna erakutsi zuen, eta oso pozik gaude Departamentu Teknikoaren

ULMA Hormigón Polímero



lankidetzarekin”. Piezei dagokienez, proiektua landu duen arkitektoak material aurrefabrikatu eta arin bat behar zuen zutabeak estaltzeko, horiek errazago instalatu ahal izateko. ULMAren hormigoi polimeroaren arintasunak, eta obrarako diseinatu zen kokapen sistema bereziak, zaharberritzea egiteko behar zituen bermeak eskaini zizkieten. Era berean, materialaren malgutasunak proiektu bereziak behar zituen formak sortzea ahalbidetzen zion, despiezea sinplifikatzeko, eta obraren garapenari zailtasunak kentzeko. Ondorioz, estaldura soilik hiru pieza motarekin egin zen: bat hegaletarako, beste bat arkuaren estalkietarako, eta beste bat intrados eta dobelarako.

ULMA Orga Jasotzaileak

ULMAk Diamante Berde berri bat merkaturatu du

Merkatuaren eskariari erantzute aldera, ULMA Orga Jasotzaileak negozioak merkaturatze berri honekin ekin dio 2010ari: Mitsubishi-ren GRENDIA ES/EX FD/FG 15-55 N, diesel / LPG propulsiotun organ bertsiot eguneratua, 1.5-5.5 tonako ahalmen mailarako. Aurreko urteetako ildo berari jarraituz, ULMA Orga Jasotzaileak eta Mitsubishi produktu berrien garapenean ari dira lanean, Kontrapisatu Termikoen gama hobetuz eta, aldi berean, berrikuntza bere zutabeetako bat dela argi utziz. Serie berri honek ezaugarri eta aukera berriak dakartza, direkzioaren ardatzean eta transmisioan hobekuntzak, teilatutxoaren estilo berria, LED argien aukera laneko argi keinukari eta fokuetarako, turuta aukera aldagailuaren palankan, kargako pisuaren adierazgailua eta gainpisuaren adierazgailua eta, azkenik, hautazko berogailu integratua. Lehenago aipatutako ezaugarri berriekin, hautsaren eta hezetasunaren sarrera murriztu egiten da, langileak informazio gehiago du eskuragarri, mantentze kostuetan aurreztu egiten da, organen bizitza luzatzen, errazagoa da akatsak non dauden jakitea eta detektatzea, aldizkako mantentze lanak egin behar direla garaiz jakinarazten zaio langileari, lanpostua seguruagoa da, kalteak prebenitu egiten dira, segurtasuna, erosotasuna eta eraginkortasuna hobetu, gure bezeroek aplikazio zorrotzetan egindako inbertsioa babestu egiten da eta kostuak aurrezten dira. Azken batean, iraupen luzeko osagaiei, mantentze txikiko diseinuari eta kontsumo txikiari esker, mantentze gastuak maila baxuenean



mantentzen dira.

GRENDIA orga

jasotzaileak bizkorrak,


egonkorak eta oso indartsuak dira; eraginkortasunaren, isurpen urrien eta zarata txikiaren arteko konbinazioa eskaintzen dute. Mitsubishik hainbat ezaugarri ergonomiko erantsi die, erosotasuna, kontrola eta zehaztasuna maximizatze aldera. Eraitza, orga jasotzaile fidagarri bat da, langileak ahalik eta produktibitate handiena lor dezan errendimendu handienarekin, aplikazioa eta baldintzak zeinahi direla ere. Modelo honek baditu funtzio aurreratu asko serieko ezaugarrietan. Horregatik, GRENDIAK kalitate-prezio erlazio bikaina eskaintzen du. Diamante berde berri hau ingurumenarekiko hartua dugun konpromisoaren ikur bat da, kalitatea, fidagarritasuna eta, noski, inbertsio ona bermatzen dituen, eta biltegietan salgaiak manipulatzeko laguntzen du.

ULMA Packaging



HARAGIA PROZESATU ETA ENBASATZEKO SINPOSIUMA ERRUMANIAN.

ULMA Packagingeko filialak, beste bi lankiderekin batera, sinposium bat antolatu zuen joan den martxoaren 12an, Bukaresten (Errumania), prozesatzeko eta enbasatzeko soluzioei buruz, batez ere haragiaren industriara zuzenduta, eta 100 gonbidatu baino gehiago bertaratu ziren. Sinposiumaren babeslea INDUSTRIA CARNII aldizkaria izan zen, eta hainbat aurkezpen eta bideo emanaldi egin ziren, etxe bakoitzak bereziki haragiaren sektorerako eskaintzen dituen nobedadeekin. Aurkezpenen ondoren, gonbidatu guztiak ekitaldirako berariaz prestatutako show room batera igaro ziren, eta bertatik bertara makinak funtzionatzen ikusi ahal izan zituzten, aplikazioak erakusteko ekintza interesgarriekin. Finean, azokan osagarria den sustapen jarduera bat, oso emaitza egokiak eman zituen.



Tenisaren tenplu berria –La Caja Mágica– ULMA drainatze kanalekin

ULMA Hormigón Polímero, bere Drainatze Kanalen linearen bidez, Madrilgo tenisaren tenplu berria den La Caja Mágica-n dago. Dominique Perrault frantziar arkitektoak diseinatutako gune harrigarri hau munduko tenis instalaziorik modernoentzat jo da, eta hala aurkeztu dute, 2016ko Joko Olinpiarretarako Madrilen hautagaitzaren azpiegitura izar gisara. Barneko kirolgune osoan, ULMAko DOMO modeloko drainatze kanalak instalatu dira -nerbiodun burdinurtuzko saretarekin-. Entzunareto-Plazako kanpoaldeko guneetan SELF200K modeloko hormigoi polimerozko kanalak jarri dira, altzairu galbanizatuzko profilarekin. Bi kanalok, erabilera anitzekoak eta aldaketarik gabeko garaierakoak, bereziki diseinaturik daude luzeegiak ez diren kanalizazio lineetarako, eta C250 karga motari eusteko ahalmena dute, EN-1433

Arauren arabera. Bi modelo horiek SELF familia osatzen dute, eta oinezkoentzako nahiz ibilgailuen noizean behingo trafikorako pentsatuta daude, 100 eta 300 mm bitarteko zabalerekin. La Caja Mágica-ko pieza nagusia beira eta altzairuzko eraikin handi bat da, beharren arabera zabaldu edo itxi egiten den estaldura mugikorra daukaten hiru tenis zelarekin. Berezitasun horrek munduan bakar egiten du eraikina. Izan ere, antzeko planteamenduak gauzatzeko planak daude gaur egungo tenis «tenplu» batzuetan, esaterako, Roland Garros eta Wimbledon-en. Perraultek proposatutako eta Madrilgo agintariek onartutako La Caja Mágica izenak adierazi nahi du tenis zelaiak, beren sabai lerrakorrarekin, “tiraderak dituzten kutxak bezalakoak direla, magoenak bezalakoak”, arkitektoaren arabera.



ULMA Taldea

KOLESTEROLARI BURUZKO HITZALDIA; KOLESTEROLA, < 200. Joan den apirilaren 20an, Oñatin ULMA Taldeak duen Auditoriumean kolesterolari buruzko hitzaldi bat egin zen. Ane Azurmendi Kaiku Benecoleko Nutrizio Zerbitzuko arduratu zen hitzaldia emateaz. “< 200 de Colesterol” izenburupean, azpeitiarrak kolesterolemia murrizteko zenbait aholku kardio-osasungarri eman zituen. Kolesterola murriztea lortzeko gakoak dira “dieta osasungarria, astean 5 egunetan ariketa fisiko moderatua egitea eta landare estanola hartzea”. Horrez gain, gogorarazi zuen “bihotz-hodietako gaixotasunak direla Espainian heriotzarako lehenengo kausa”, eta LDL edo kolesterol txarra esaten zaionaren mailak eragina daukala bihotz-hodietako gaixotasunerako arriskuan. Ondoren, parte-hartzaile guztiek kolesterola neurtzeko test bat egin ahal izan zuten.

ULMA Conveyor Components

ULMA CONVEYOR COMPONENTS S. COOP. MDA ARRABOL BERRIA. ULMA Conveyor Components-ek aplikazio ertainetarako arrabol berria aurkeztu du, solteko garraioaren industriarako (porlan enpresak, harrobiak, garraiatzaile tubularrak, etab.). Arrabol berria gaur egungo gama ertainekoa ordezttera dator, eta merkatuko baliorik onenak aurkezten ditu eszentrikotasunari eta esfortzu dinamikoari dagokionez. Horri esker, bezero berriengana iritsi ahal izango gara, esaterako, garraiatzaile luzeak diseinatzeko ingeniarietzara, horrelakoetan parametro horiek gakoak baitira energia aurrezteari eta produktuaren bizitzari dagokionez.



ULMA Agrícola

ULMA Agrícola-k instalazio bat egin du Zamorako Asprosub elkartearentzat, E PLANaren bidez finantzatuta

ASPROSUB 1962tik martxan dagoen irabazi asmorik gabeko elkarte bat da. Sortu zenez geroztik, erakundearen helburu nagusia da adimenari loturiko ezintasunen bat daukaten pertsonak beren gaitasunak ahalik eta gehien garatu ahal izatea, eta hala, bizi kalitate optimoa lortzea. Elkarteak 3 zentro ditu, eta bertan saiatzen dira ezgaitasunen bat daukaten pertsonak lan munduratzeko. Horretarako, 1997an enplegu tailer bat sortu zuten landare apaingarriak ekoiztu eta saltzeko. Gainera, jarduera osagarri gisa, Zamorako 2. Berdegunean administrazioaren gestioa egin eta zerbitzuak ematen dituzte, hiriko Udalarekin adostutako lankidetzaren bitartez. Asprosubek Erabilera Anitzeko pabiloi berri batekin ekin zion urteari. Pabiloia 220 m²-ko berotegi irregular batetik abiatuta sortu zen. ULMA Agrícola-k instalatu zuen eta E PLANaren laguntzari esker finantzatu ahal izan zen. ULMA Agrícola-k eraikitako pabiloi hori 7,4 metroko zabalera duten luzera aldakorreko 2 pabiloi berezik osatzen dute, 10 metroko barne modulazioarekin. Pabiloia baditu, era berean, aireztapen artifizialeko sareta motorizatu batzuk, aireztapen berezi bat eta 4x4 metroko ate motorizatu bat, gurdiak eta kamioiak igarotzeko.





“Mondragon Korporazioa eredugarria da guztiontzat”

Gaur egungo krisialdi ekonomikoa dela eta, baliteke agintaldi hau zaila izatea, bereziki Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren moduko baterako. Nola egiten dio aurre Bernabe Undak gaur egungo egoerari? Irtenbideak bilatzeko jarrera aktibo batekin eta jakinda krisialditik ateratzea denon menpe dagoela. Eusko Jaurlaritzatik laguntza ematen ari gara enpresa guztiontzat, baina ezinbesteko baldintza bakar batekin, hau da: enpresek

elkarri lagundu behar diote. Hau da, denek egin behar dute zerbait krisialdi honetatik ateratzeko.

Zein politika bultzatzen ari dira Euskadiko industria jarduera berpizteko eta zein arlo estrategikoren alde egiten ari gara? Gure Sailean hiru estrategia nagusi aplikatzen ari gara. Alde batetik, Eutsi estrategia, zeinaren bidez enpresei haien arazoak konpontzeko bide sorta bat eskaintzen diegun. Kontua da

beraien premietara egokitutako soluzioak ematea. Sarritan, enpresek laguntzak leku desberdinetatik jasotzea behar dute. Guk leihatila bakarra eskaintzen diegu behar dituzten soluzioak bilatzeko: batzuetan pasiboak berriz finantzatzea behar izango dute (izen handiko aditu batzuk homologatu ditugu berregituraketetarako); beste batzuetan, parte hartzeko maileguak edo abalak behar dira eskari handietarako. Gainera, ezin dugu ahaztu oraingo egoera bukatzen denean, oso ondo egon behar

Bernabé Unda

Bilbon jaioa, 1956an, Bernabe Unda Ontzigintzako ingeniaria da Madrilgo Ontzigintzako Ingeniaritzako Goi mailako Eskola Teknikoan eta Masterra du Gestio Aurreratuan Deustuko Merkataritzako Unibertsitatean. Enpresa Zuzendaritzako Executive Masterra dauka, Deustuko Unibertsitatearen INSIDEk emanda. 2009ko maiatzaren 9an Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailburu izendatu zuten.

dugula, lehiatzeko prest. Horretarako Lehiatu estrategia aktibatu dugu. Enpresei laguntza ematen diegu, aditu batzuk kontratatzen ditugu enpresei laguntzeko eta aholkatzeko jarduera norantz bideratu behar duten jakin dezaten. Azkenik, Liderra izan estrategia prestatzen ari gara. Estrategi honekin gure herrialderako eta etorkizunera proiektu batzuk bultzatu nahi dira, hain zuzen ere gure ekonomian gure enpresek eraturako ehunean traktore lana egiten duten proiektuak. Horien adibide ditugu ibilgailu elektrikoaren inguruan garatzen ari diren proiektu guztiak.

Zein dira Bernabe Undaren ustez euskal enpresek gaur egun bizi duten atzeralditik ateratzeko oinarritzat izan beharko dituzten zutabeak?

Lehiakortasuna da gakoa, eta balio erantsia sortzeko kostuarekin eta produktibitatearekin lotuta dago. Gaur egun bizitzen ari garen krisiak jarduera ekonomikoari eusteari lehentasuna ematera eramaten gaitu epe laburrean, baina betiere lehiatu beharra daukagula ahaztu gabe, gure enpresak jada horretan ari direla eta atzerriko merkatuetan zein Espainiako merkatuan lehenengo lerroan daudela ahaztu gabe. Gure industriek, teknologiek, merkataritzak eta turismoak krisiaren erasoei eusteko gai izan behar dute, eta, horretaz aparte, gaurko eta etorkizuneko gizartearen ongizatea bermatuko duten

lehiakortasun irizpideak gogoan izan behar dute beti. Euskal enpresek eraturako sareak prest egon behar du etorriko zaizkion aukerentzako. Gobernua Lehiakortasun Plan bat prestatzen ari da une honetan 2010-2013 epealdirako. Plana udan aurkeztuko dute, baina une honetan eragile ekonomiko eta sozial guztien ekarpenak entzuten ari dira.

Krisi egoera honetan, nola ikusten du Industria Sailburuak Mondragon Korporazioko kooperatiben egoera?

Ba al dugu, zure ustez, lehiatzeko abantailaren bat beste sozietate mota batzuen aurrean? Mondragon Korporazioa enpresa sare osorako eredu da. Krisi egoera honetara egokitzen jakin du erabaki zailak hartuta, nahiz eta gerora ikusi erabaki zail horiek beharrezkoak eta eraginkorrak izan direla. Enplegua mantentzea lortu du, nahiko azkarra eta

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailburua

malgua izan da eta, horri esker, beste batzuk baino hobeto daude orain.

Zer ematen digu berrikuntzak garai aztoratu hauetan? Nola bultzatu berrikuntza?

Berrikuntza edo nazioartekotzea moduko kontzeptuak funtsezkoak dira lehiari aritzeko. Guk 3I+G kontzeptuaz (Ikerketa, garapena, berrikuntza eta nazioartekotzea) hitz egiten dugu, eta hori ez da marketineko estrategia bat. Premia bat da. Euskadik berrikuntzak egiteko duen gaitasunari eutsi eta handitu behar du, kanpora gehiago irekitzeaz aparte. Jakinda ere krisiari eutsi beharra dagoela, ezin dugu ahaztu berrikuntzak egiteko eta lehiatzeko dugun gaitasuna sendotzea dugula garrantzitsuena.


Bukatzeko, ezagutzen al du Industriako sailburuak ULMA taldea? Zein mezu emango zenieke ULMA taldeko bazkide eta langileei?

Bai horixe! Gure Saila etengabe ari da harremanetan Mondragon Korporazioarekin. ULMA Mondragon Korporazioko funtsezko zatia da, eta euskal ekonomiaren garapenean dudagabeko funtzioa betetzen du, bai enplegua sortzen egiten duen lan izugarriarengatik, une honetan 4.000 langile baino gehiago baititu, bai Gipuzkoan eta Euskadin sortu duen aberastasunarengatik. Bakarrik gauza bat esaten ahal diet, lanean jarraitzeko gero eta lehiakorrak izateko.



*“Euskadiko enpresek
erne ibili beharra daukate
aukera berriei heltzeko ”*

ULMA Inoxtruck sortu da, ULM



2009. urtearen amaieran ULMA Safe Handling Equipment kooperatiba eratu zen (USHE edo ULMA INOXTRUCK izen komertzialaz ere ezaguna). Enpresa proiektu hau ULMA Orga Jasotzaileen 2009-2012ko plangintza estrategikotik sortu da, eta balio erantsi handiagoa sortzeko beharrari erantzuten dio. Negozioak daukan ikuspegi honek, hau da, dagoeneko existitzen diren oinarri teknologikoko jarduera produktiboetarantz irekitzeak, nazioarteko bokazio argiarekin, Negozioa bera hazteko aukerak handitzen ditu, dimentsio berri batean. ULMA Taldearen negozio berriak sustatzeko politikak, kasu honetan, Taldeko hainbat negoziotako profesional multzo bati aukera eman dio esperientziak bateratzeko eta enpresa proiektu berri bat gidatzeko talde bat osatzeko. Proiektu honen bitartez, Negoziorako proposamen berri bat sortu nahi da, manipulazioko ekipamendu higienizagarri eta herdoilgaitzen gama baten kontzeptualizazio, diseinu eta fabrikazioaren bitartez; ekipamenduak teknologikoki aurreratuak izango dira, eta bereziki zuzenduko dira elikaduraren sektorerako (fresh-food) eta farmaziakora, kaltegabetasun maila handiko beste ingurune batzuk baztertu gabe, esaterako, aeronautika edo mikroelektronika. Elikaduraren eta farmazia-kimikaren sektoreen ezaugarria da, batez ere, segurtasun neurri zorrotzak dituztela balio kate osoan, horrelako enpresetako gela zurietan manipulatzeko den produktua giza kontsumora zuzentzen delako, izan elikagaiak zein medikamentuak, eta horrek eragin zuzena du pertsonen osasunari dagokionez. Sustapen hau bultzatzeko indar nagusia izan zen sektore horien eskariari erantzuteko ez zegoela lehen mailako eskaintzak egingo zituen inor. Sustapen berriari ekiteko azken helburua jarduera iraunkorra sortzea izan da, eta ingurunean enplegua sortzea. Ildo horretan, negozio berriari esker, talde sustatzaileak 50 enplegu berri sortzea espero du, 2015. urtearen bueltarako.

ULMA Taldearen Sustapen berria



ALAZNE GURIDI

ULMA Inoxtruckeko lehendakaria

“Hauek bezalako garai zailetan, sustapen berri bat sortzea albiste benetan ona da. Eskerrak eman nahi dizkiet Mondragon Inbertsioei, Mondragon Berrikuntzari eta ULMA Taldeari, emandako babesagatik, baita ere ULMA Orga Jasotzaileen barruan martxan jartzeko ideia eta garapena irmo defenditu duten guzti-guztiei. Sustapenaren garapenak ilusioa eta ahalegina esan nahi du ULMA Orga Jasotzaileak osatzen dugun kolektibo osoarentzat. Jarduera honen alde egiten dugu gogotsu, etorkizun hurbilean fruituak jasoko ditugun esperantzarekin, bai aberastasuna eta lehiakortasuna sortzeari dagokionez, bai enplegu kooperatiboa sortzeari dagokionez. Aldi berean, lerro hauek aprobeztatu nahi ditut Sustapenaren talde bultzatzaileari eskerrak emateko, inplikazio, dedikazio eta ilusio handiz ari baita lanean, aukera hau errealitate arrakastatsu bihurtu dadin. Horiek dira egiazko protagonistak, eta horiengan dugu konfiantza jarrita: Aitor Telleria, Beni Hurtado, Fernando Odriozola, Idoia Pinto, Igor Larringan, Jone Larrañaga, Josu Urzelai eta Roberto Txintxurreta. Eskerrik asko eta animo guztioi”.



FERNANDO ODRIOZOLA

ULMA Inoxtruckeko zuzendaria

“Talde sustatzaileko kide guztiek ilusio handia dugu abiarazi dugun abentura honen erronka profesionalarekin zein pertsonalarekin. Eta ilusio horren isla da proiektuaren bide orria betetzeko jartzen ari garen dedikazioa, inplikazioa eta lankidetzeta. Baina ez gaude bakarrik, eta lerro hauetatik eskerrak eman nahi dizkiegu ULMA Orga, ULMA Packaging, Precinox, UHS eta UPTCKo profesional guztiei, beraien ezagutza eta dedikazioarekin babesten ari zaizkigulako, eta ahaleginen sinergia horrekin proiektuak aurrera egitea ahalbidetzen ari direlako. Horrez gain, azpimarratu behar dira baita ere ULMA Taldeak eta Mondragonek proiektua eta taldea errealitate bihurtzeko erakutsi duten konfiantza, bai hasieran, bai oraingo ezarpenean, beharrezkoak diren baliabideak gure eskura jarri baitituzte. Hemendik, gure familiei ere eskerrak eman nahi dizkiegu, INOXTRUCK proiektua aurrera ateratzeko erakutsi diguten ulermen eta animoagatik.”





ANDORRAKO DEL 2 VALIRES TUNELAREN SARRERAREN IKUSPEGI PANORAMIKOA

ULMA Construcción-ek Dels 2 Valires tunelerako sarbideetan lankidetzan jardun du Andorran

Dels 2 Valires Tunelerako sarbide berriek Andorran egindako munta handiagoko azpiegitura bat osatzen dute. Encamp eta La Massana herriak lotuko dira, eta hala, orografia konplexu bat gaindituko da eta batetik bestera joateko denbora laburtu egingo da. Amaitu berri den obra honen zailtasuna hauxe izan da: hainbat

egitura gauzatu behar izatea hainbat tartetan eta aldi berean, materialaren gehienezko txandatze sistema erabiliz. Hori guztia egiteko, ULMA Construcción-en ekarpena oso garrantzitsua izan da. 250 metrotik gorako taulak egiteko, ULMAK ENKOFORM H-120 enkofratze sistema erabili zuen, zinbria bidezko euskarriz. 28

metroko argi hutsarteei soluzio emateko, H-33 Egiturak erabili ziren, Zinbria T-500 dorre modularrekin konbinatuta. Taularen sekzioetara egokitzeko, zubiaren sekzioaren itxurako bi txarrantxa erabili ziren, zinbriaren buruetan bermatuta. Txarrantxek, era berean, horma atal bakoitzaren neurria zehazten zuten zutabeei eusten zieten.

Lotura sistema horrekin, multzoaren egonkortasuna ziurtatzen da bai lan fasean bai enkofratu aldaketa egin bitartean. Horma atal horiek taula gainean jarritako traktelen bidez desenkofratu ziren; hala, hurrengo posiziora lekualdatu ahal izan zen, desmuntatu barik. Muntaketa eta desmuntaketarako behar den lan-eskua beste sistema batzuekin baino txikiagoa da, batez ere hainbat kokatze egiten denean, kasu honetan bezala, hainbat zubi berdinekin edo luzera handiko zubiekin. Egindako pilarea, hiru egituren gunean, plinto baten gaineko tripode gisara planteatu zen. Hainbat luzeratako palak, 3,5 metro zabal eta sekzio aldakorrekoak, bide zubiko taulan erabilitako produktu

berberekin egin ziren, eta hala, obra faseak errentagarri bihurtu ziren. 4 metro inguruko horma atalak hondoko enkofratuz eraiki ziren (ENKOFORM H-120) alboetan bi eta estalkian bat; horrek atalkako desmuntatzea egiteko aukera eman zuen eta ageriko hormigoizko akabera bikaina izan zen. Euskarria DU-120 bermatzeko lau zutaberen bidez egin zen, zinbria dorre batzuen gainean. Euskarri horiek arinak dira, muntatu eta manipulatzeko errazak, eta garabiarekin garraiatu ziren, blokeaketa automatikoko mihizatadura sistemak baitituzte. Hala bada, aurrez muntatutako dorre horiek langileen lana erraztu egin zuten eta kostuak nahiz lan denborak aurreztu ziren. Pilarearen burua

eraikitzeko, euskarriari eta enkofratuari soluzioa eman behar zitzairen; horretarako, ENKOFORM H-120, ENKOFORM V-100 eta zutabeek osatutako sistema bat erabili zen, eta pilareari lotzeko euskarria, berriz, MT Kotsola bidez.



Halako obretan, segurtasuna oinarrizko premisa da. Hori dela eta, ULMAren enkofratuari emandako zeharkako soluzioan, pertsonak libre ibiltzeko alboko korridore bat prestatu zen, barandaren babesarekin



XABIER PALACIOS

ULMA Construcción

“La Massanan (Andorra) amaitu dugun obra hau oso garrantzitsua izan da. Hasiera oso zaila izan zen, luraren orografia eta gauzatu beharreko egituren zailtasun teknikoak zirela eta. Obra egiteko, hainbat pertsona taldek esku hartu du eta ULMA Construcción-en obra zibilerako eskuragarri ditugun ia material guztiak erabili dira, hala ENCORORM H-120a nola H33 sareta sistema. 800 tona material garraiatu eta muntatu da, oso lantalde tekniko eta giza lantalde handi batekin. Obra honetan, ULMAk, profesionaltasun handia ez ezik, konplexutasun eta berezitasun handiko egiturak gauzatzeko fidagarritasun handia ere baduela erakutsi du. Hortik ondorioztatzen da estatuan lortu dugun hedapena, nazioartean plataforma gisan balia genezakeena, kontuan izanik alor honetan datozen urteetarako zehazten ari diren helburuak zeintzuk diren. Une honetan argi eta garbi ziurta dezakegu puntako enpresa garela tamaina honetako proiektuak gauzatzen.”



José Antonio Sánchez. ULMA Hormigón Polímero

GUADARRAMAKO MENDILERROA



Erdialdeko zonako leku interesgarriren bat nabarmendu eta aurkeztera gonbidatu naute. Gaztela-Mantxako eta Madrilgo geografian herrietan paraje ugari eta ugari aurki daitezke. Baina, logikoa denez, madrildarra izanik eta gaztaroa oroitzuz, ez litzateke egokia izango askorentzatekin konparatuzkoa den naturgune bat aipatu gabe uztea. Madrilgo Erkidegoaren muga da, ipar-mendebaldetik hego-ekialdera doana. Denek "Madrilgo Mendilerroa" esaten diote, eta hiritik oso hurbil dagoen naturgunea da, eder askoa. Mendi hauetan hiru gune bereiz daitezke argi eta garbi, "La Bola del Mundo" izeneko erdigune komun batekin, 2.200 metro baino altuago. Antzemateko zalantzarik ez dago, tontorrean antena handi zenbait baitaude. Ekialderantz

"Cabezas de Hierro" tontorra ikusiko dugu, 2.383 metro garai, eta horri jarraituz beste hainbat gailur, 2.000 metrotik gora, "Cuerda Larga" izena hartzen dutenak. Guadarramako mendilerroko alde honetan nabarmentzen dira halaber "Puerto de la Morcuera" eta "Alto de la Najarra", 2.106 metroekin. Mendilerroaren beste isurialdea mendebalderantz luzatzen da, Navacerrada, La Fuenfría eta La Aceveda mendateekin. Gailur ezagunak daude bertan, hala nola "Los Siete Picos", 2.138 metro, "la Mujer Muerta", 2.193 metro, baita beste batzuk ere, esaterako, "La Peña del Águila" eta "El Alto de Los Leones". Azken zatiak aipamen berezi merezi du, bertan baitaude: "Peñalara" natur parkea, 2.430

metroekin, "Cotos" mendatea, eta ipar-mendebalderantzko azken txokoa, "Somosierra" mendatea.

IBILBIDEAK

Pentsatuko duzue, jarduerak egiteko aukerak asko dira, baina ohikoena eta gustukoena gertatzen dena ibilbide ugarietako edozein osatzea da. Mota guztietakoak daude, bitxiak, luzeak, zailak... Ibilbide bera ere, udan paseoa izan daitekeena, neguan pioleta eta kranpoiak behar dituen klasikoetakoa bihurtzen da. Esanguratsuenak, beharbada, Peñalarako natur parkeko bideak dira, eta horietako bat gomendatuko dizuet orain, udaberrian egiteko, edo neguan, oso prestatuta bazaudete. Azken horientzat, baita ere, "Cuerda



bidaia gida

Peñalarara joaten bazarete, Rascafría inguruan gera zaitzekete, "Los Calizos" izeneko hotel xarmagarrian (loscalizos@loscalizos.com). Hotela Lozoya ibaiaren ertzean dago, 30.000 m²-ko finka batean, kokagune zoragarri batean, eta, gainera oso jatetxe gomendagarria dauka; baietz gustatu! Egonaldia aprobetxatuz, hurbil dagoenez, arkitektura monumentalaren zaleek ezin dute Santa Maria del Paular monasterioa bisitatu gabe utzi; Paular ibarrean dago, eta bertatik abiatuta edo bertan barrena ere, ibilaldi ugari egin daitezke. Hotel horretaz gain, landa turismoko etxe asko dago inguruotan; garai batetik hona aukera hori oso zabaldua dago eta preziatua da, kalitatearen eta prezioaren arteko harreman ona eskaintzen duelako. Informazio gehiago: <http://www.parquenaturalpenalara.org/>

Larga" tradizional eta ospetsua, gutxi gorabehera 15 kilometroko bidearekin, 2.000 metro garai diren hainbat tontorrek osatutako gailurreriarekin. "Navacerrada" mendatetik abiatzea eta "La Morcuera" mendatean amaitzea, horixe da ibilbidea egiteko

gehien erabiltzen den norabidea, eta zarpilzortzi orduan egin daiteke. Halere, esan dizuedan bezala, ezin da "Peñalara" natur parkea bisitatu gabe utzi. Rascafría herriaren barrutian dago. Gailurra, Lakuak eta Zirkua dira bere osagaiak. Hain zuzen ere, gailur

hori da Madrilgo Erkidegoko tontorrik garaiena, 2.428 metrorekin. Eta mazizo hau da eskalada praktikatzeko penintsulako erdialdeko lekurik enblematikoenetakoa (150 bide baino gehiago daude). Ibiltzeko ere leku ezin hobea da, hainbat bide baitaude natur parkea zeharkatu eta hobeto ezagutzeko aukera ematen dutenak. Ez dizuet bide jakin bat deskribatuko; onena izango da bakoitzak aukeratzea, dituen ahalmenen arabera. Interneten aukera ugari aurkituko duzue, oso egoki esplikatuta.

Espero dut Guadarramako mendilerroa bisitatzeko aukera duzuen guztioi irteera ongi ateratzea, eta nire gomendiotxoak baliagarriak izatea. BESARKADA BERO BAT ULMA TALDEKO KIDE GUZTIEI.



gutarren argazkiak eta historiak



“Motorraren munduak poz handiak ematen dizkit”



David Ardions, ULMA Orga Jasotzaileak negozioko bazkidea, motorraren munduan “Vivo” ezizenez ezaguna, autoen eta lehiaketan zale amorratua da.

“Txikitatik gustatu izan zait motorraren mundua, baina duela 6 urte hasi nintzen Rallyetan, Igoeretan eta Rally Sprintetan parte hartzen. Ume ginela, lagun baten aitak igoerak eta Rallyak ikustera eramaten gintuen biok. Zaletasuna handik datorkigu; probatzeko gogoia, berriz, beranduago etorri zitzaigun. 2003an auto berria erosi nuen eta lehiaketan parte hartzen hasi nintzen. Urtebete lehiaketaz lehiaketa ibili ondoren autoa saldu eta bi urte eman nituen lehiaketa batean ere parte hartu gabe; izan ere, lehiaketetan parte hartzeko ahalegin ekonomiko handia egin behar nuen eta garai hartan zaila zen niretzat ahalegin hori egitea. Ez nuen itzultzeko asmorik, baina 2006an aukera izan nuen eta beste auto bat erosi nuen, eta berriro hasi nintzen lehiaketetan parte hartzen. Mundu hau oso gustuko baduzu, zaila da uztea. Niri behintzat poz ikaragarria ematen dit, emozioez eta adrenalinaz gain. Une hauetan 16 V-ko Renault Clio Sport 2.0 bat daukat, 2000. urtekoa, eta auto horrekin ari naiz Euskal Herriko eta Gipuzkoako txapelketan, 2 klasean, N taldean. Lehiaketetan aritzeak denbora eta diru asko eskatzen dit, baina podiumera heltzen naizenean edo Gipuzkoan nire kategoriako txapela eskuratzen dudanean (David Ardions 2007 Igoerak) egin ditudan ahalegin guztiak ordainduta geratzen dira. Hurrengo lehiaketak Udanako igoera, San Miguel Rallysprinta eta Gernikako Rallya izango dira. Azken 2 urteetan Gernikako Rallyan ez naiz gustura gelditu, ezin izan baitut Rallya bukatu, eta aurten arantza hori kendu nahiko nuke. Mundu honetan, zailena da diruz lagunduko dizun norbait topatzea; hori da gure oztoporik handiena. Une hauetan Mugitegi eta Vivocars karrozerien laguntza daukat konponketetarako, baina gehiago behar dugu, dirua behar dugu. Lagunen laguntza ere ezinbestekoa da; lasterketetan gurpilak aldatu behar dira eta hurrengo saiorako konponketak egin, eta hori dena erlojuaren kontratan egin beharra dago, baina, horretan, egia esan, zorte handia daukat. Gainera aurten mundu honetan gabiltzan lagun artean Klub bat sortu dugu, Oñatiko motor Taldea alegia, eta ekintza batzuk antolatzeke asmoa daukagu, esaterako Udanako Igoera, Goitibeherak eta Auto Klasikoen Kontzentrazioa”.

Zer irizten diozu ULMA Taldean daukagun Itundutako Jatetxeen Sistemari? Hobetu litekeela uste duzu?



MIKEL ALTUNA. ULMA Handling Systems

“Onena aukera ezberdinak izatea da”

Oro har, uste dut oso ondo dagoela eta sistemari eutsi egin beharko litzaiokeela. Onena, bazkaltzera joateko jatetxe bat baino gehiago izatea da, hainbat aukera izatea, eta aldatu ahal izatea. Gainera, jatetxe horiekin akordioak adostek aukera ematen digu merkeago jateko, eta hori ere oso positiboa da. Nire ustean, hainbat jatetxetan eta merke jan ahal izatea pribilejioa da, esaterako, jangela daukaten beste kooperatiba batzuekin konparatuta, zeren horiek ez baitaukate hautatzeko aukerarik. Eta batez ere kontuan hartu behar da badirela beren langileei jatetxe zerbitzurik (ezta bestelako aukerarik ere) eskaintzen ez dieten enpresak ere, eta janariaren kostu osoa langileak berak hartzen duela bere gain. Arrazoi horiek guztiak direla eta, uste dut sistema hau oso lagungarri zaigula batez ere Oñatin bizi ez eta etxera bazkaltzera joateko nahikoa denbora ez daukagunontzat. Hobetzeko alderdiei dagokienez, nire iritziz txarrena da data bereziak egotea, esaterako, abuztuko zenbait egun, non gutako batzuei lan egitea tokatzen zaigun eta jatetxe gehienak itxita egoten diren. Hala ere, ulertzen dut jatetxeen eta enpresen egutegiak bateratzea ez dela batere erraza izango eta jatetxeek ere atsedean hartzeko eta egun libreak gozatzeko eskubidea dutela.



ESTEBAN IGARTUA. ULMA Hormigón Polímero

“Hobeto legoke apur bat merkeago balitz”

ULMA n sartu nintzenetik erabiltzen dut zerbitzua, orain dela 9 urte, eta balorazioa guztiz positiboa da. Aurreko lan esperientzia batean ere enpresa barruko jangela sistema erabili nuen eta, egia esan, Itundutako Jatetxeen Sistemaren menuetako janaren kalitatea askoz hobea da. Egia bada ere Sistema hau garestixeagoa dela. Nire ustez, zerbitzua hobea litzateke merkeagoa balitz, hau da, ULMAk pixka bat gehiago ordainduko balu, krisi garaietara egokituta.



MARTXEL GARATE. ULMA Orga Jasotzaileak

“Laguntza mota hauek beti ongiatorriak dira”

Nire iritziz, sistema ona da langileen beharrei erantzuteko. Itundutako jatetxeen kopurua nahiko handia da eta horrek aukera ematen du aldatzeko eta gustukoena duzuna aukeratzeko, izan hurbiltasunagatik izan kalitateagatik. ULMA Taldearen eskutik datozen laguntza hauek eskergarriak dira, eta bereziki urrunetik gatozenok eskertzen ditugu, egin beharreko ahalegin ekonomikoa askoz ere txikiagoa baita guretzat eta horrek aukera hori hautatzera bultzatzen gaitu. Hor dago, baita ere, kooperatibak bere inguruan aberastasuna sortzeko duen espiritua, kasu honetan, Oñatiko ostalaritza sektorearen mesedetan. Hobetuko nukeen gauza bakarra txartel sistema da. Nik zerrenda magnetiko bat jarriko nuke irakurgailuaren ordez; hala, jatetxeen lana erraztu egingo litzateke.



AINGERU GALLASTEGI. ULMA Packaging

“Txartelarekin ordaintzeko aukera oso eroso da”

Nire ustez, oso sistema ona da. Jatetxeak apartatzeko aukera zabalaz gain ordaintzeko erabiltzen dugun txartel sistema, oso eroso da. Berritzailea eta bakarra dela gehituko nuke. Ez det ezagutzen inguruko enpresetan horrelako aukerarik. Egia esan, ez zait hobekuntzarik bururatzen baina zerbait esatekotan, barra kodearen irakurketaren inguruan zerbait egin leikela iruditzen zait. Bere egunean, tiketetatik gaur egungo barra kodea duen txarteletara aldatu zenean, oso ondo iruditu zitzaidan baina sistema berria pixkat geldoagoa bihurtu zen. Lehen txartelak utzi eta listo, baina oraingo sistemarekin, batzuetan kola dexenteak egiten dira zenbait jatetxetan. Nire ustez egin leiken hobekuntza hortik etor liteke. Barra kodeen irakurketa azkartzea lortuko balitz, ia ezin hobea izango litzateke gaur egungo sistema.

Borja Azpeitia, ULMA Construcción-eko bazkidea, Aconcaguan izan da



"Joan den otsailean, bigarrenez, Hego Amerikan egon nintzen, Mendozan, zehazki. Mendozan Amerikako eta gainerako munduko gailurrik garaiena dago, Himalaia eta inguruko mendiak alde batera utzita. Esperientzia oso gogorra izan zen, nahiz eta bagenekien zer zetorkigun: egun gogorrak eta egundoko hotza. Horri guztiari oxigeno falta gehituta, latza da oso. Iritsi ondoren, igotzeko baimenak ateratzea izan zen egin genuen lehen gauza, Mendozan. Behin baimenak eskuratuta, parkeko sarrerarantz joan ginen, 200 bat kilometrorara Txilerako norabidean. Behin baimenak entregatu ostean, 20 egun daukazu, eta tarte horren zati handi bat aklimatazio egokia lortzen ematen duzu. Iaz bizi izandako esperientziarekin, 10 egunean Aconcaguako gailurra jotzea lortu nuen, 6962 metrora. 3400 metrora eman genuen hiru gau, Confluencia izeneko leku batean. Hori da, hain zuzen ere, aklimatazio kanpamentua. Handik Plaza de Mulas-eko kanpamentu nagusira joan ginen, 4.500

metrora, eta han bai, han igarri egiten da oso goian zaudela. Behin kanpamentu nagusian, ondo hidratatu eta 5000 metroko gailurretaraino ibili beharra dago, aklimatazio egokia lortzeko. Handik 2. kanpamentura igo ginen hasi eta buka, eta hori traumatikoa izan zen gorputzarentzat. Elur ekaitzen artean hiru gau atseden hartzen eman ondoren, eta gorputzak ondo erantzuten zuela ikusita, bertatik gailurrera jotzea erabaki genuen, 3. kanpamentuan kanpatu barik. Hura izan zen egun latzenetakoa; eguraldi oneko tarte bat aprobetxatuz irten genuen, goizaldeko hiruretan, eta eguerdiko hirurak aldera jo genuen gailurra. Nafar bat eta biok joan ginen. Behin goian, ezin da irudikatu ere egin, egia esan, ezin nuen sinistu. Argazki batzuk atera eta jaisten 5 ordu eman ondoren, 2. kanpamentura iritsi ginen. Biharamunean kanpamentu nagusira itzuli ginen eta behin han zaudela jabetzen zara benetan bizi izandako instante bakoitzaz. Egia esan, merezi izan zuen, bai horixe!"



profila



Arantxi Berricano
Erizaina

Arantxi Berricanok, erizainak, erretiroa hartu du ULMAn, 36 urtetik gora lan egin ondoren.

Zenbat urte ULMAn? Nola hasi zinen? Ba, 1974ko urtarrilean sartu nintzen ULMAn. Garai hartan Eibarko amaetxean lan egiten nuen eta halako egun batean, kalean, ULMAko lehenengoetako bazkide den Vicente Elguero komentatu zidan ea ULMAra joan nahiko nukeen. Zergatik ez, esan nion nire buruari, eta orain arte. Orduetik 36 urte igaro dira. Hasiera gogorra izan zen, ULMAko espazio eta erizaindegiak ez baitzeuden batere ondo prestatuta. Orain oso bestelakoa da dena, modernizatu egin da dena.

Gogoratzen dut hasieran asko lagundu zidala Jose Maria Galarzak, garai hartan Oñatiko medikua zenak. Zerbait gertatu eta beti zegoen laguntzeko prest.

Zer nabarmenduko zenuke zeure ibilbidetik eta zein gurako zenuke gogora ekartzea ULMAn emandako urte hauen guztien ondoren? 36 urte hauetan gehien nabarmenduko nukeena da ULMAko langile guztiakin izan dudana harreman ona; baita gauza guztiak izan duten bilakaera ikusi izana ere.

ULMA izan dudana lanpostua eta erantzukizuna tarteko, hainbat une larri-larri bizi izan dut. Denetik ikusi dut ULMAn: istripuak, bihotzekoak etab. Jainkoari eskerrak, kasu gehien-gehienetan dena joan da ondo, nahiz eta ospitalera egindako bidaia batzuetan une estuak bizi izan ditugun. Azkenik, eskerrak eman gura nizkieke ULMAko pertsona guztiei eta, batez ere, ibilbidea nirekin partekatu duten medikuntza talde guztiak gogoratu gura nituzke. Gogora ekarri nahi ditut, bereziki, Jon Azpiazu, Iñaki Igarzabal, Anabel Luengo eta Maite Elguero.

ERRETIROA HARTU DUTENAK: ULMA Taldean 2010eko urtarrilaren 1etik 2010eko ekainaren 30era erretiroa hartu dutenak.



José Miguel Abásolo



Vicente Urrejola



Jesús Laskurain



Elías Elorza



Roberto Idígoras



Luis Ugarte



Pedro Irurzun



Javier Altube



Arantxi Berricano



Rafael Alcelay



Fernando Etxeberria



Emilio Axpe



Dionisio Sánchez



Juan Pablo Pedregal

Eskerrik asko guztioi, eta goza dezazuela! Zorionak

ELIAS ELORZA; AGURRA



ULMA Hormigón Polímeroko lankideek Elias Elorzari agur-ekitaldi hunkigarria egin zioten joan den apirilaren 24an. Eguna goizeko 8:30ean hasi zen, Arantzazun, Aizkorrira igotzera animatu ziren ausartentzat, eta 9:00etan Urbiara igo ziren lagunentzat. Fondan indarberritu eta, kalean poteo txiki bat egin ondoren, Larrain Gain elkartera igo ginen. Omenaldia Aurrekuarekin hasi zen, ULMA Hormigón Polímeroko kideek dantzatuta, eta, opariak eman eta besarkadak banatu eta gero, bazkariari ekin zitzaion. Kafearekin batera Eliasen aldeko bertsoa kantatu genuen, eta hainbat bideo ikusi genituen, aretoa barre algaraz, malkoz eta umore onez bete zutenak. Eguna Oñatiko kaleetan amaitu genuen, gorputzak iraun zuen arte.

“Sentimendu, poz, mira eta, baita ere, etsipenez beteriko eguna izan zen, gure lan jardunean hain maite genuen kide baten faltan jarraituko dugula onartu behar izategatik, izan ere, guretzat “maisua” izan da, eta izaten jarraituko du.



ANIMATU ETA BIDALI ZURE IDEIAK; begira@ulma.es

Eta gainera, beti bezala, gure Iradokizun Kutxa ere badugu, zuen ideia eta iritziak jasotzeko prest.

ULMA Taldea
Zerbitzu Zentralak
Garagaltza Auzoa 51 -
P. K. 22.
20560 OÑATI (Gipuzkoa)
Erref.: Begira
Email: begira@ulma.es